


FESTIVAL DE MÚSICA CONTEMPORÁNEA DE NAVARRA NAFARROAKO MUSIKA GARAIKIDEAREN JAIALDIA DEL 7 AL 17 DE SEPTIEMBRE DE 2022 2022KO IRAILAREN 7TIK 17RA

DEL MITO AL LOGOS



MITOTIK LOGOSERA



Duela pare bat urte, Ramon Andresen “El mundo en el oído” eta “Pensar y no caer” saiakera bikainak irakurtzen nituen bitartean, gaur egungo musika-sorkuntza munduan pentsamendu filosofikoaren arrastoari buruzko gogoeta egiten nuen eta ondorioz ezagutza zein erreflexioaren beharra berrestu nuen.

NAK jaialdiak urte bat geihago ospatzen du, dagoeneko zortzi urte dira sortu zenetik. Aurten ere aurreko urteen hildo beretik jarraitu du Nafarroako kultur-sarea berritzen eta eraldatzen, hezkuntza eta inklusioaren garrantzia azpimarratzen, eta entitate desberdinen arteko sare lanak sendotzen. Baina, batez ere, gure aliatuen izerdiarekin, inoiz baino beharrezkoagoak diren gogoeta, ikerketa eta sorkuntza prozesuak babestu ahal izan ditu.

Kontuan izanda gizartearen zati handi batek artea merkatu-ondasun gisa ulertzen duela, kapitalismoak arte desberdinen dimentsio sortzailearen azaleko edukiak elikatu besterik ez dute egin, arreta galarazteko tresna gisa. Kultura alor preziatua izanik, gure mesedeen arabera moldatu behar dugu, ez ordea arte-adierazpen alternatiboen aukerak itotzen dituzten multinazionalen mesedetan.

“¿Zertarako balio dute abangoardiek?”. Urtetik urtera Nak jaialditik erantzuna eman nahi izan diogu galdera honi. Jaialdi honen jatorritik begirada eraldatzailea duten proposamenak izan ditugu oinarritzat, baina agian geure buruari galdetzen hasi beharko genioke: “Zertarako balio du jaialdi batek?”.

Argi dago jaialdi baten helburua ez lukeela izan beharko urte osoan zehar eremu kulturaletan eskeinitako eskaintza bera aurkeztea edota zentzurik gabeko edukien hornitzaile bihurtzea, non gogoeta prozesurik gabe dena balio duen. Jaialdiek, alde batetik, urteko gainerako proposamenak osatu beharko litzukete. Bestetik, berritzeko eta eraldatzeko gaitasuna izan beharko lukete; eta, azkenik, ezinbestekoa izango litzateke nortasun propioa izatea.

Ramón Andresek idatzitako “El mundo en el oído” saiakeraren hasieran, ezagutza bilatzera bultzatzen duen esaldi hau azaltzen da: *“Lo que incidió primeramente en el ser humano y en su constitución del entendimiento fue el sonido. Oír, escuchar, es presentir, y presentir conduce a pensar”*. NAK jaialdiaren edizio honetan pentsamendu filosofiko hau kontutan hartu da proposamen berritzaileak, eraldatzaileak eta bitxiak sortzeko, jaialdiari nortasun berezia ematez. Proposamen hauek guztiak, sorkuntza, gogoeta eta pentsamendu prozesuak eskaintzen dituzte, etorkizunari begira.

Sorkuntza berriko musika bultzatzen duen proiektu hau ezaguna eta ezezagunaren, ametsa eta errealitatearen arteko mugan sortzen da. Jakinmina da azken finean muga hori zeharkatzera eramaten gaituen eragilea. Kuriositate horrek zibilizazioaren garapena bultzatzen du; aldi berean elkarren arteko ezagutza sustatu eta etorkizuna sortzen du. Kulturak ordezkari gaitzan lortzea gure esku dagoenez, jarraituko dugu NAK jaialdia sustatzen eta prozesu hau posible egingo duten aliatuak bilatzen.

Ramón Andresen hitzetan: *“El hecho de que Platón concibiera al ser humano como un árbol no ha de antojarse una simple abstracción. Un árbol es también su proyección. Quien lo contempla también lo prolonga”*. (“Pensar y no caer”, p. 142).

Aurtengo jaialdiaren irudi grafikoa egiteko ezagutzaren zuhaitza hartu dugu oinarritzat. Zuhaitzaren sinboloak duen esanahia kontutan hartuta, luzaroan zaudeten artista, laguntzaile, teknikari, kultur eragile eta publikoari eskerrak eman nahi dizuegu: eskerririk asko bihotzez pentsamenduaren kimuak eta NAK jaialdiaren sorkuntza elikatzeagatik.

Yolanda Campos Bergua
NAK Jaialdiaren zuzendari artistikoa

Mitotik logosera

Grezian, Kristo aurreko VI. mendean, lehenengo filosofoak garai haietako kontakizun mitikoen inkoherentziak zalantzan jarri zituzten, begirada berri baten ikuspegitik naturan gertatutakoa arrazoitzeko eta gauzen berezko errealitatea aurkitzeko.

Lehen filosofo hauek, ezagutzaren mugak aztertzeko beharra sentitzen dugunoi bidea ireki ziguten. Jatorrizko jakin-min hori da zibilizazioaren garapena sustatzen duena baina, gaur egun mitotik urrun gaude edo kontakizun horiek gure errealitatea elikatzen dute oraindik ere?

Gaur egun badakigu ez zela unibertso mitikoarekin halako hausturarik izan, narrazio hauek gure existentzia ulertzeko eta justifikatzeko beharretik ere sortzen baitira. Esan daikeke gure munduaren sustraiak direla eta aldi berean kulturaren kimua ere. Beraz, unibertsoaren misterio sakonenak argitzera iritsiko bagina, gaur egungo gizarteak ahalmena izango luke bizirik irauteko?

Agian egin dezakegun gauza bakarra jakinduriaren bidea transmititzen jarraitzea da mitoaren behaketa alde batera utzi gabe, eta musikak mugak zeharkatzeko duen ahalmenaz fidatu. Jaialdi honetan mitoaren magia, filosofiaren jatorria, eta teknologiatik zientziaren mitifikaziora doan ezagutzaren ikerketa biltzen dituzten proposamenak azaltzen dira. Azken batean, ametsen munduaren eta errealitatearen arteko unibertso hibridoak.

Arrazionaltasuna errealitate guztiak azaltzeko gai ez dela kontutan izango bagenu, errazagoa irudituko litzaiguke bizirik irauteko behar dugun ezezagutzari eustea. Agian sorkuntza artistikoaren misterioa bi zentzutan uler daiteke beti: ezaguna eta ezezagunaren mundutik begiratuta, magiaren eta zientziaren ikuspuntutik edota mito zein logosetik ulertua.

NAK KONTZERTUAK

- MUOM: Mitoaren sustraiak
- JULIÁN ELVIRA: Ezagutzaren bilaketa
- LAURA FARRÉ ROZADA: Filosofiaren jatorria
- SINKRO ENSEMBLEA: Zientziaren mitifikazioa
- CMC GARAIKIDEAK & SIGMA PROJECT: Mitotik logosera

NAK TXIKI

- TXUS EGUÍLAZ: Ikuskizun musikal pedagogikoa
- CMC GARAIKIDEAK: Esperientzia artistiko inklusiboa

NAK DIDAKTIKOA

- RAMÓN ANDRÉS & IGNACIO FDEZ. GALINDO: Elkarrizketa
- CSMN Musikologia Departamendua: Topaketa autoetnografikoa
- CSMN Saxofoi, Perkusio eta Akordeoi ikasgelak: Kontzertua
- CSMN Konposizio Departamendua & Ganbara Musika ikasgela: Kontzertua
- BEFACO: Hardware musikal tailerrak

NAK EXPLORER

- AMSIA: Zuzeneko sekuentziazio eta sonorizazio laborategia



PENTSALARI GONBIDATUA

Ramón Andrés

Aurtengo Nak 2022 Jaialdiak Ramón Andresen laguntzarekin kontaktzen du, gaur egungo adimen distiratsuenetako bat, besteak beste, 2015. urteko Viana Printzearen Kultur Saria eta 2021. urteko Saiakera Sari Nazionala jaso dituen. Edizio honen ardatza zehazteko Ramon Andresek hainbat liburutan idatzitako gogoetak kontutan hartu dira. Musika garaikidean oinarritutako sorkuntza berriak, ezagutzaren argitasunaren bila bultzatzen gaituztenak.

Pentsalari, saiogile eta poeta hau Ignacio Fernández Galindorekin (kazetaria, komunikazio-irakaslea, konpositorea eta CMC Garaikideak taldearen sortzaileetako bat) izango duen elkarrizketari esker, entzuleek aukera izango dute jaialdiaren eta ondorengo kontzertuaren ardatz nagusiaren testuingurua ulertzeko.

Zalantzarik gabe topaketa zirrara garria izango da irailaren 17an ospatuko dena, Jaialdiak proposatzen duen pentsamenduaren espazioari argitasuna eta hausnarketa eskainiz.



KONPOSITORE GONBIDATUA

Inés Badalo

Inés Badalo, nazioartean oihartzun handia izan duen konpositore eta gitarrista gaztea, izango da aurtengo NAK edizioaren enkargu lana egingo duena.


Inesek sortutako konposizio lana grekotik datorren Arkhé hitzaren esanahian oinarritzen da. "Printzipioa" edo "jatorria" esan nahi du. Antzinako Greziar filosofiaren oinarritzko kontzeptua da Arkhé, unibertsoaren jatorria ikuspegi arrazional batetik azaltzen zuena.

Kontzeptu hau lotura zuzena du aurtengo jaialdiaren ardatza izango den ideiarekin, eta aplikazio ugari ditu musikaren esparruan. Horrela, bai musikak, bai poesiak, elementu sinbolikoak aurkezten dituzte, metaforaz (mitoz) beteak daudelarik; baina, aldi berean, elementu horien artean orden zorrotza dago, soinu-diskurtsoa osotasun koherentean bihurtuz (logos).

Erabateko estreinaldia izango den "Arkhé" izeneko obra irailaren 17an ospatuko den "Del mito al logos" kontzertuan entzuteko aukera izango dugu, Sigma Project saxofoi laukotearen eskutik.



Irailak 7, asteazkena



NAK DIDAKTIKO KONTZERTUA. KAOS ETA ORDENAREN ARTEAN
NAFARROAKO KONTSERBATORIOKO SAXOFOI, PERKUSIO ETA AKORDEOI IKASGELAK

NAFARROAKO GOI MAILAKO KONTSERBATORIOA. 19:30ean.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

CSMNko Saxofoi, Perkusio eta Akordeoi ikasgelekin koordinatutako ekintza.
Nafarroako "Ciudad de la Música" eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin.

F. Guerrero, P. Jodlowski, J. Torre, M. Boniny eta T. Riley konpositoreen obrak.



NAK didaktikoaren barruan kokatutako ekintza hau aurrera eramateko Nafarroako Goi Mailako Kontserbatorioaren laguntzarekin kontaktu da. **Instituzio honek bere formakuntza fasea luzatu du ikasleen interesa pizteko musika garaikidearen eta errepertorio berriaren inguruan.** Ekintza hauek etorkizuneko edizioetan errepikatuko dira. Aurtengo edizioan Kontserbatorioko departamentu desberdinen 40 ikasle zein irakasle baino gehiagok parte hartuko dute.

Kontzertu esperimental honek ordenaren eta kaosaren arteko trantsizio-espazio bat proposatzen du, non **indar progresibo eta kontserbadoreak kontrolaren alde borrokatzen duten.**

Programa honetan bi indarrek elkarrizketan dihardute interpreteen eta publikoaren arteko gogoeta-espazioak eraikitzeko. **Obra musikal hauetan soinu tinbriko berritzaileak eskaintzen dira.**

PROGRAMA

- Rhea (1988) - Francisco Guerrero (saxofoi ensemblea)
- 24 loops (2007) - Pierre Jodlowski (perkusio ensemblea eta soundtrack stereo)
- Lo saben mis palabras (1996) - Joseba Torre (saxofoi, perkusio eta banda magnetofonikoa)
- Dialog (2014) - Matej Bonin (saxofoi altua eta akordeoia)
- In C (1964) - Terry Riley (ensemble mistoa)


Zuzendaria: Ángel Soria

Musika interpreteak: Saxofoi ikasleak: Antón Gómez, Paula Delgado, Laura Martínez, Rebeca Sola, Idoia Pérez. David Marzo, Desta Hernández, Joel Delgado, Iñigo Eleta, Adrián Latorre, José Ángel Ciria.

Perkusio ikasleak: Alejandro Monge, Alejandro Carrascoso, Mario Marzo, Joan Marzal, Eneko Etxarri, Manuel García. **Akordeoi ikaslea:** Ainhoa Quintana.

Irakaslegoa: Andreu Rico, Javier Pelegrín, Nahikari Oloriz, Nekane Iturrioz eta Ángel Soria.

Irailak 8, osteguna



NAK DIDAKTIKO TOPAKETA. MUSIKA KONPOSIZIOA XXI. MENDEAN NAFARROAKO KONTSERBATORIOKO MUSIKOLOGIA IKASLEAK

CIVICAN NAFARROAKO KUTSA FUNDAZIOA. 19:00etan.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

Nafarroako Kontserbatorioko Musikologia eta Konposizio Departamentuekin koordinatutako ekintza. Nafarroako Ciudad de la Música-ren, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eta Nafarroako kutsa fundazioaren laguntzarekin.



NAK jaialdiaren esparru didaktikoan ere, CSMNko Musikologia eta Konposizio Departamentuen ikasleek proiektu berritzaile bati ekin diote, "autoetnografia kolaboratiboa" izeneko ikerketa-teknikatik abiatuta. **Autoetnografia lankidetzan bultzatzen duen metodologia ikertzailea da zeinean ikerketa prozesuaren edozein momentutan ideia berriak sor daitezke.**

Prozesu osoan zehar Departamentu desberdinen ikasleak elkarrizketak konpartitu dituzte, eremu desberdinen ezagutzak partekatuz. Ekintza honek artista gazteen pentsamendua eta konposizio-teknikak ezagutzea du helburu. Horretaz gain, ikerketa prozesuaren barne begirada eskaintzen du.

Ikasturtean zehar, Musikologiako ikasleek jarraipen pertsonalizatua egin diote Konposizio ikasleek sortutako lanen idazketari. **Proiektu honen helburua da konposizio lanaren informazioa ematea eta ikerketa eraldatzaile zein berritzaile hori jendeari jakinaraztea.** Topaketan islatutako emaitzak hainbat kontzepturi eragiten die, hala nola Gilles Deleuzeren filosofiako denbora linealaren ideari, Béla Bartoken konposizio-hizkuntzaren eraginari edo elementu astronomiko eta fisikoei, eta horiek musika ideietan duten irudikapenari.

Hizlaria: Iñigo Hernández, Elena Aguirre eta Iñigo Morentin
Moderatzailea: Sandra Myers

NAK



Irailak 9, ostirala

NAK TXIKI KONTZERTUA. PEKE-TOKO-PÁS
TXUS EGUÍLAZ

CIVICAN NAFARROAKO KUTSA FUNDAZIOA. 18:00etan.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

Ikuskizun erritmikoa, 6 urtetik gorako haurrei eta familiei zuzendutako ekintza.
Civican – Nafarroako kutsa Fundazioaren lankidetzarekin egindako jarduera.

NAK jaialdiaren enkargua: Erabateko estreinaldia.

Peke-Toko-Pás musika garaikidea modu berritzaile eta libre batean transmititzeko proposamena da. **Erritmoa ekintza desberdinetan nagusitzen da eta parte-hartzaileak dira ikuskizunaren protagonistak.**

Erritmoak gorputzean, hitzetan, eguneroko objektuetan edota perkusio tresnetan agertuko dira. Erritmo horiek lotura gisa erabiliko dira, batzuetan solista moduan eta beste batzuetan soinu-giroak zein ikus-giroak birsortuz.

Ikusleak modu aktiboan parte hartuko du, sorkuntza tailer batean sentituz. Horrek guztiak egingo du ikuskizuna esperientzia parekabea izatea. **Bertan, musika garaikidea, erritmoak eta bibrazioak elementu eraldatzaileak izango dira.**

Ikuskizuna magiaz beteta egongo da, teknologia, musika, mugimendua eta pertsonen laguntzarekin kontatuz. Zalantzarik gabe, erritmoz eta energiaren baterikoa jarduera parekabea.

NAK KONTZERTUAK. ZIENTZIAREN MITIFIKAZIOA. ENTZUNEZKO KODEAK
SINKRO ENSEMBLEA

BALUARTE AUDITORIUMA (HARRESI ARETOA). 20:00etan.
Sarrera: 15 €.

Z. F. Gerenabarrena, F. Ibarrodo, J. L. Campana, M. Urquiza eta I. Urrutiaren obrak.

Zientziaren hasieratik, jarduera zientifikoaren muinean intseguritatea eta espiritu kritikoa egon dira, eta, hala ere, komunikabideek zientzia mitifikatzen dute. Gaur egun esaten da gure gizartea zientziaren menpe dagoela, baina, hala ere, zientziaren inguruko albisteak ez dira batere zientifikoak. **Logoak esnatzen ez gaituen bitartean, zientziaren ikuspegi mitikoan mantenduko gara.**

Obra musikal berri bat sortu baino lehen informazio zientifiko eta teknikoaren ikerketa sakona egin behar da lanak oinarri sendoa izan dezan. Hala ere, obra horren jatorria txundituta uzten gaituen antzinako mito batean egon daiteke. Beraz, motibazioak, garapena eta emaitzak plano desberdinetan orekatu daitezke, lan bakoitzak adierazi nahi duen kontzeptua aberastuz.





Gaur egungo konposizioak bide desberdinak irekitzen ditu eta konpromezuak ezartzen ditu honako maila desberdinetan:

- Zientziak eta teknologiak eskaintzen digutenaren aurrean jarrera kritikoa hartzea.
- Garrantzi sozial eta ekonomiko handiko adierazpen artistiko baten bidez azalpenak bilatzea, irtenbideak proposatzea edota eztabaida bat planteatzea.

Lege fisikoen ezagutzak soinuaren portaera akustikoa arautzen du. Kode horiek egungo musika osatu, zabaldu eta entzuteko moduak zehazten dituzte. Gaur egun teknologia berriek estetika musikal desberdinek musika entzuteko modua mitifikatu dute, ikuspegi bakarreko patrioiak hedatuz.

Sinkro ensemblearen kontzertuan entzungo diren obretan musika entzuteko modu desberdinak proposatzen dira, pertzepzio-maila desberdinak aurkeztuz. Interpretazioaren bidez, konpositorearen pentsamendua transmititzen da eta aldi berean, entzuleari musika era askotan sentitzeko aukera ematen zaio. Azken finean, musika garaikideak persona guztien eskura dagoen gauza xumea eskatzen du: entzute aktiboa.

PROGRAMA

- Bikoitz (2021) biolin, biolontxelo eta elektronikarentzat - Zuriñe F. Gerenabarrena
- Euskal Ritmoak (1971) biolin eta piano - Félix Ibarondo
- New life (2021) biolin "live" eta ahozko tradizio digitalizatuko instrumentuen ensemblea - José Luis Campana
- Cinq pièges brefs (2013) - Mikel Urquiza
- Hari-Harian (2021) biolin, biolontxelo, piano "live" eta ahozko tradizio digitalizatuko instrumentuen ensemblea - Isabel Urrutia

ARTISTAK: Víctor Parra (biolina), Esti Oraá (biolontxelo), Sergio Gutiérrez (pianoa), Koldo Sagastume (elektronika).

Irailak 10, larunbata

NAK DIDAKTIKO TAILERRA. SINTETIZADORE MODULAR ANALOGIKOAK ERAIKITZEN BEFACO

CTL SOINU ETA IRUDI LANBIDE HEZIKETA. Goizeko 9:00etan. Doako sarrera aldez aurretik izena emanaz. 16 plaza.

CTL soinu-irudi lanbide heziketa eta arion estudioaren laguntzarekin egindako jarduera.

Hardware musikal tailerren seigarren edizioa. Parte-hartzaileek sintesi modularreko sistema propioa eta sintesi kengarri bidezko soinu-sorkuntza eraikitze aukera izango dute.

NAK KONTZERTUAK. EZAGUTZAREN BILAKETA. ÍCARUS
JULIÁN ELVIRA

BALUARTE AUDITORIUMA (HARRESI ARETOA). 20:00etan.
Sarrera: 15 €.

J. Ávila, J. Elvira, J.Ph. Rameau, J.B. Lully eta H.Purcell-en obrak.

Ícarus diziplina anitzeko ikuskizuna da, ezagutzaren bilaketa jakin-minetik abiatuz planteatzen duena. Jakin-min horrek Ícaro irudia bultzatzen du labirintotik ateratzeko, Débaro pertsonaia bihurtzeko desirarekin. Azken finean, gogoetak, **asmamenak eta arrazoimenak bultzatutako bidaia da Ícarok egindakoa.**

Obra honetan musika barrokoan oinarritutako egitura aurkezten da. Bertan, arrazoibide heuristikoari dagokionez, elektronika eta asmakuntza berriko tresnak (Prónimo txirula edo flaudamioa) azaltzen dira.

Pieza musikala hiru ekitalditan aurkezten da: labirintoa, Ikaroren hegaldia eta erorketa. Zati bakoitzak soinu-proposamen esperimentaletan oinarritutako egitura du. Proposamen horietan Frantziako barrokoaren bi ikuspegi agertzen dira: alde batetik Rameauren iluminismoa eta bestetik, Lullyren dantzek transmititutako melodien edertasuna zein erritmoen aberastasuna. Obra musikal honen amaieran Purcell konpositoreak idatzitako música para los funerales de la reina Maryren obra aipatzen da Ikaroren mitoaren amaiera tragikoa adierazteko..

PROGRAMA

I partea. En el laberinto

- Entrada. (Elektronika) - Julián Ávila
- El silencio de los muertos - Julián Elvira
- Laberinto. (Elektronika) - Julián Ávila
- Passacaglia - J. B. Lully
- Deconstruction - (Elektronika inprobisazioa eta flaudamioa) Julián Elvira & Julián Ávila

II partea. El vuelo de Ícaro

- Les sauveges - J. Ph. Rameau
- El vuelo - Julián Elvira
- Cerca del sol - Julián Elvira

III partea. La caída

- La caída (Elektronika inprobisazioa eta subcontrabaja txirula) - Julián Elvira & Julián Ávila
- Marcha (Mary erreginaren hiletak) - H. Purcell
- Evolution - Julián Elvira/H. Purcell
- Creta - Julián Elvira
- Marche pour la cérémonie des turcs - J. Ph. Rameau

ARTISTAK: Julián Elvira (Prónimo txirula, "subcontrabaja" eta "flaudamio" txirula), Eduardo Costa (txirulak eta tuboak), Ana Torralba (txirulak eta tuboak), Julián Ávila (soinu elektrikoaren produkzioa eta hedapena).



Irailak 11, igandea



NAK DIDAKTIKO TAILERRA. SINTESI KENGARRI BIDEZKO SOINU-MODULAZIO BEFACO

CTL SOINU ETA IRUDI LANBIDE HEZIKETA. 9:00etan.
Doako sarrera aldeaz aurretik izena emanez. 16 plaza.

CTL soinu-irudi lanbide heziketa eta arion estudioaren laguntzarekin egindako jarduera.

Befakoren eskutik egindako hardware musikalaren bigarren tailerra.



NAK EXPLORER LABORATEGIA. ZUZENeko SEKUENTZIAZIOA ETA SONORIZAZIOA AMSIA

CTL SOINU ETA IRUDI LANBIDE HEZIKETA. 18:00etan.
Doako sarrera aldeaz aurretik izena emanez. 10 plaza.


CSMNko Konposizio Departamentua, Nafarroako Ciudad de la Música, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentua, CTL Formakuntza eta Arión Estudioaren lankidetzarekin egindako jarduera.

Soinu ikerketa eta esperimenezko balio duen laborategi hau epe luzera begira sortutako proiektua da. **Proiektu honekin Garaikideak konpositoreen eta CSMNko Konposizio ikasleen sorkuntza-horizontea zabaltzea lortu nahi da.**

Ekintza honetan, Javier Úcar soinu-artistak zuzeneko sekuentziazioa eta sonorizazioaren inguruko saio bat eskeinitu du, XXI. mendeko musikan funtsezkoa den tresnarekin, hain zuzen. Horretarako, Javierrek 72. urteko Topaketan antzetzutako bi pieza hartzen ditu oinarritzat: Eduardo Polonio eta Horacio Vaggioneren IT; eta David Tudorren Untitled.



Irailak 14, asteazkena



NAK DIDAKTIKO KONTZERTUA. KRONOFONIAK
CSMNko KONPOSIZIO DEPARTAMENTUA & GANBARA - MUSIKA IKASGELA

NAFARROAKO GOI MAILAKO KONTSERBATORIOA. 19.30ean.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

Nafarroako Kontserbatorioko Konposizio eta Ganbara-musika Ikasgela Departamentuekin koordinatutako ekintza. Nafarroako Ciudad de la Música eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren laguntzarekin.

N. Iribas, A. Iriarte, E. Azparren, I. Legasa eta A. Pérez de Azpeitiaren obrak.

Kontzertu hau aurrera eramateko Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren lankidetzarekin kontatu da. Azken jarduera hau ikasleak beren musika garapena eta errepertorio berriko musika sustatzeko asmoarekin aurkeztuko da.

Kontzertu honetan konposizioko ikasleek ikasturtean zehar osatutako zenbait pieza erakutsiko dira beste ikasle batzuen interpretazioei esker. **Bertan erabateko estreinaldiak izango diren 5 obra musikal entzungo dira, etorkizuneko artisten proposamen berritzaileak.**

PROGRAMA


- Música para viento, percusión y electroacústica (2022)* - Nicolás Iribas
- Leyenda (2022)* - Antton Iriarte
- Galileorek Ilargiak II (2022)* - Eneko Azparren
- Krónos quiere morir (2022)* - Iñigo Legasa
- Meshuge (2022)* - Anne Pérez de Azpeitia

*NAK Jaialdirako egin diren erabateko estreinaldiak


Zuzendaria: Javier Pelegrín

Musikariak: Paula Ayerra (zeharkako txirula), Pilar Miao (oboea), Andrea Pérez (fagota), Leticia Gabari e Irene Martín (klarinetea), Ana Lucía Navarro (pianoa), Ainhoa Quintana (akordeoia), Asier Capón (akordeoia).

Irakaslegoa: Joseba Torre, Francesca Croccolino eta Javier Pelegrín.



Irailak 15, osteguna



NAK KONTZERTUAK. FILOSOFIAREN JATORRIA. URAREN METAMORFOSIA
LAURA FARRÉ ROZADA

CIVIVOX CONDESTABLE (PATIOAN) 20.00etan.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

P. Jodlowski, U. Chin, J. M. Guix, O. Ben-Amots, P. Manoury, D. Lang, D. Fujikura, eta Y. Zhaoren obrak.



Filosofiaren jatorria Miletoko Talesekin sustatu zen mendebaldeko zibilizazioaren sorlekuan.

Zibilizazio horretan Heraklitok kosmosaren irudi gisa proposatu zuen lira musika instrumentua. Kontutan izanda tresna musikal honen sokak oreka tenkatuan daudela eta harmonia soken bibrazioaren desorekatik sortzen dela, intuizioak ezkutuan dagoen logosa antzemateko aukera ematen digu. Hala ere, Pitagorikoak izan ziren musika kosmosaren zentroan kokatu zutenak, esferen harmoniatik abiatuta.

Historiak Pitagorasi esleitu dio soinu kontsonanteen proportzioaren aurkikuntza. Horrela, harmonia, matematikaren antzera, proportzioaren eta ordenaren ezkutuko printzipiotzat hartzen da, Platonek La Republika liburuan deskribatzen duen bezala: "Musika arnariaren, erritmoaren eta logosaren artea da, problema aritmetiko, geometriko eta astronomiko tipologiaren adibideak ematen dituen".

Eskola pitagorikoan arkhéa zenbakia zen bezala, Talesentzat ura zen gauzen oinarritzko printzipio eta jatorria. **Premisa hauek kontuan izanda, programa honetan musika eta matematika nahasten dituen erreperitorio garaikidea proposatzen da.**



PROGRAMA

- Série Blanche (2007) - Pierre Jodlowski
- Etude n.5 ' Toccata ' (2003) - Unsuk Chin
- Etude n.1 ' In C' (1999, rev. 2003) - Unsuk Chin
- Drizzle Draft (2007) - Josep Maria Guix
- The Butterfly Effect 'To Laura Farré Rozada' (2021) - Ofer Ben-Amots (b.1955)
- Toccata pour piano (1998) - Philippe Manoury
- Cage (1992) - David Lang
- Frozen Heat (1998) - Dai Fujikura
- Still Life ' dedicated to Laura' (2020) - Yixuan Zhao

Irailak 16, ostirala

NAK TXIKI ESPERIENZIA. SOINUEN ESPLORATZAILEAK CMC GARAIKIDEAK

CIVICAN-NAFARROAKO KUTXA FUNDAZIOA. 18:00etan.

Modu presentzian izena eman ekintza hasi baino ordu bete lehenago. 15 plaza.

5-7 urte bitarteko haurrei zuzenduta dagoen esperientzia musikal inklusiboa. Civican-Nafarroako Kutxa Fundazioa eta Itaka-Eskolapios Fundazioaren laguntzarekin antolatutako ekintza.

Soinuen esploratzaileak esperientzia musikal inklusiboa da, abangoardiako musikan erabiltzen diren teknika hedatuen ezagutza modu pedagogikoan eskaintzen duena, narrazioaren, parte-hartze aktiboaren eta jolasaren bidez. **Horrela, entzulearen interesa piztu nahi da sorrera berriko musika eta teknika garaikideen inguruan.**

Proposamenaren ardatza "Altxor Handia"-ren inguruko narrazioa da. Historio honetan, baliabide tinbriko espezifikoa erabiltzen dira ikasleen eta tailerreko musikarien arteko elkarlana dramatizazioaren bidez sustatzeko. Bertan, haizezko instrumentuekin egin daitezkeen soinu efektu desberdinak aurkeztuko dira. Horien artean: Slap, eolikoak, multifonikoak, musika-tresnari erantsitako ahotsaren erabilera eta harmonikoak entzungo dira.

Esperientzia musikal honekin lortu nahi da txikiak sorrera berriko musikari ohitzea, jarduera praktikoa batzuen bitartez. Esperientzian parte hartzeko ez da alde aurreko prestakuntzarik behar.

ERREPERTORIOA

- Drunken Sailor - Trad. Anón. (Arr. Bea Monreal)
- Bad Boujloud (2019) - Jean Charles Richard

TALDE DIDAKTIKOA: Bea Monreal (oboe), Leire Unzué (saxo soprano), Josu Marauri (saxo tenor).

NAK KONTZERTUAK. MITOAREN SUSTRAIAK. TERRA MUOM

CIVIVOX CONDESTABLE (PATIOA) 20:00etan.

Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

Mitotik logosera pasatzeko urratsa modu dialektikoan eta ez linealean ulertzen dugu. Nahiz eta urrats hori presokratikoen arrazionaltasunak sustatu, ez zen kontzientziaren jauzi kuantiko bat izan, baizik eta, gure ustez, giza kontzientziaren beste ahalmen bat sortzea. Gaur egun ez gara guztiz arrazionalak, eta antzinean ez ginen guztiz mitikoak izan.



Terrak e-*struktura* dialektikoa eskeintzen du. Alde batetik, **lurra elementua aurkezteko honako instrumentuen soinuak erabiltzen dira: djembé, didgeridoo eta afrikar kalabaza.**

Instrumentu hauetaz gain, subarmonikoetan aberatsak diren gutural kantuen teknikak ere erabiltzen dira lurra elementua irudikatzeko. Bestetik, éter elementua aurkezteko (presokratikoen arabera, éter naturako 5 elementuetako bat, mitikoa eta gainerako guztien oinarria) kantu harmonikoa erabiltzen da, en-*semble* honen espezialitatea hain zuzen ere.

Aurretik deskribatutako bi elementuak testura musikal desberdinak erabiliz interpretatzen dira mitoaren erroak birsortzen dituen hizkeran.

PROGRAMA

- Eter
- Astral
- Ardhi
- Akasha
- Sa Mantra
- Ancestral
- Khörzün
- Gea- Aether

Obra guztiak MUOM taldeak sortuak dira (2021)

ARTISTAK: Sylvan James (biolina eta ahotsa), David Sitges-Sardà (perkusioa eta ahotsa), Joaquín Manjón, Nerea de Miguel, Moisés Pérez, German de la Riva, Roger Sans (ahotsak).

Irailak 17, larunbata

ELKARRIZKETA NAK DIDAKTIKOA. MITOTIK LOGOSERA
RAMÓN ANDRÉS & IGNACIO FDEZ. GALINDO

CIVIVOX CONDESTABLE. 18:00etan.


Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte, alde aurretik izena emanez.

Aurtengo Nak 2022 Jaialdiak Ramón Andresen laguntzarekin kontaktzen du, gaur egungo adimen distiratsuenetako bat, **besteak beste, 2015. urteko Viana Printzearen Kultur Sarria eta 2021. urteko Saiakera Sari Nazionala jaso dituena.**

Pentsalari, saiogile eta poeta hau Ignacio Fernández Galindorekin (kazetaria, komunikazio-irakaslea, konpositorea eta CMC Garaikideak taldearen sortzaileetako bat) izango duen elkarrizketari esker, entzuleek aukera izango dute jaialdiaren eta ondorengo kontzertuaren ardatz nagusiaren testuingurua ulertzeko.

Zalantzarik gabe topaketa zirrara-*garria* izango da, pentsamenduaren espazioari argitasuna eta hausnarketa eskainiko dizkiona.

NAK



NAK KONTZERTUAK. DEL MITO AL LOGOS. MITOTIK LOGOSERA CMC GARAIDEAK & SIGMA PROJECT

CIVIVOX CONDESTABLE (PATIOA). 20:00etan.
Doako sarrera aretoaren edukiera bete arte.

I. Badalo, Y. Campos, D. Cantalejo, I. Fdez. Galindo eta A. Posada-ren obrak.

GARAIDEAK Musika Zentroak NAK 2022 Jaialdiarentzat aukeratutako ikerketa eta sorkuntza proiektu berriaren ardatza mitotik logosera da. **Obra bakoitzaren lotura eraikitzeke Ramón Andrés pentsalariak zenbait lanetan egindako gogoetak kontutan hartu dira.**

Aurtengo edizioa ere CMC Garaideak eta Sigma Project taldeen arteko lehen lankidetzaren esparrua da. Proposamen hau ametsen eta errealitatearen artean mugitzen diren unibertso hibridoek osatzen dute, ezagutzaren bila bultzatzen gaituztenak.

Kontzertu honen lehenengo zatian erabateko estreinaldiak izango diren 3 obra entzuteko aukera izango dugu, Garaideak zentroaren konpositoreek idatzitakoak. Horien artean Yolanda Campos Bergua, David Cantalejo Gómez eta Ignacio Fernández Galindo izango ditugu eta hauen obrak interpretatzeko centro bereko KUARIST saxofoi laukotearen laguntzarekin kontaktzen da.

Kontzertu honen programan agertzen diren partiturak sintoísmo eta orfismoaren arteko harremanean eta Greziako filosofia klasikoan eragindako ekialdeko erlijio-tradizioan oinarritua daude. Ramón Andresen esanetan: “La naturaleza de su misticismo y el régimen de vida órficos estaban sin duda influidos por las tradiciones orientales”. (*No sufrir compañía*, p. 33) eta “La presencia de Oriente está en el sustrato de este pensamiento religioso y, así, por ejemplo, en la tradición del sintoísmo, ¿no descendié Izanagi a los infiernos, como lo hizo Orfeo para rescatar entre las más crudas adversidades a Izanami?”. (*El mundo en el oído*, p. 351).

Obra hauetan agertzen diren izaki mitologikoen sorreraren kontakizunak deskribatzeko mitologia japoniarra eta Japoniako idazkeraren eta musika tradizionalaren elementu adierazgarriak hartu dira erreferentziatzen. Elementu hauek unibertso mitikoaren eta ulermen arrazionalaren arteko lotura bat osatu arte garatzen dira, halako dualtasuna, **gogoratzen diguna eboluzioa nekez existituko litzatekeela erritu primitiborik gabe.**

Kontzertuaren bigarren zatia Philómythos (mitoaren maitalea) izeneko obrarekin hasten da. Lan honek Filosofía y consuelo de la música saiakera hartzen du erreferentziatzen. Autorearen hitzetan: “La búsqueda del conocimiento no excluye referencias míticas, dado a que antes del “pensar” hubo una sabiduría, un estudio, y un aprendizaje profundo de la naturaleza, una especulación de la phýsis que no excluyó la referencia mítica”. (p. 80).

Presokratikoen pentsamendua, Demokrito tartean zela, funtsezkoa izan zen ezagutzaren hedapenerako, mugarik gabeko lurraldea baitzen. Filosofo honek garatutako atomismoaren teoria oinarritzat hartu da obra honetan. Bertan, materia errealearen azalpena eman nahi da non errealitatea atomoz eta hutsez osatuta dagoen.



Kontzertuaren bigarren zatian entzungo den obra erabateko estreinaldia da, CMC Garaikideak Zentroaren konpositoreen artean idatzitakoa. Philómythos Sigma Project saxofoi-laukoteak interpretatuko du. Lan hau hiru zatitan dago banatua: alétheia (egia), sophia (jakintza) eta saphés (argitasuna, benetazkoa eta agerikoa). Sonoritateari dagokionez, Greziako modu klasikoak erabiltzen dira.

Programaren bostgarren pieza, **Inés Badalo** konpositoreak idatzitakoa, erabateko estreinaldia da. Arkhé izeneko obra musikal hau ere Sigma Project saxofoi-laukoteak interpretatuko du. Lan hau grekotik datorren Arkhé hitzaren esanahian oinarritzen da. "Printzipioa" edo "jatorria" esan nahi du. **Antzinako Greziar filosofiaren oinarritzko kontzeptua da Arkhé, unibertsoaren jatorria ikuspegi arrazional batetik azaltzen zuena.**

Kontzeptu hau lotura zuzena du aurtengo jaialdiaren ardatza izango den ideiarekin, eta aplikazio ugari ditu musikaren esparruan. Horrela, bai musikak, bai poesiak, elementu sinbolikoak aurkezten dituzte, metaforaz (mitoz) beteak daudelarik; baina, aldi berean, elementu horien artean orden zorrotza dago, soinu-diskurtsoa osotasun koherentean bihurtuz (logos). Obra hau Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalak (INAEM) diruz lagundu du.

Alberto Posadas konpositorearen Knossos izeneko piezarekin amaituko da kontzertua. Obra honen erreferentzia Kretako hiria da, non, kontakizun mitikoaren arabera, Dédalok Minotauroa giltzaperatzeko labirintoa dagoen. Knossos poetika auskorra iradokitzen saiatzen da, erreferentzia-markoa galdu gabe, entzuleak entzundakoaren arabera bere labirintikoaren ibilbidea sor dezan.

Unibertso mitologikora eramaten gaituen bira ziklikoa, gogorarazten diguna mito eta logos kontzeptuak beti egon direla elkarrekin harremanetan, eta lotura horretatik datorrena magikoa bihurtu daitekeela.

PROGRAMA

I. partea. Ekialdeko mitoak.

- Kami (2022)* - Yolanda Campos Bergua
- Yokai (2022)* - David Cantalejo Gómez
- Fureru (2022)*- Ignacio Fdez. Galindo

II. partea. Logos.

- Philómythos (2022)*
 - Alétheia - Yolanda Campos Bergua
 - Sophía - David Cantalejo Gómez
 - Saphés - Ignacio Fdez. Galindo
- Arkhé (2022)** - Inés Badalo

III. partea. Mitos cretenses (Kretako mitoak).

- Knossos (2016) - Alberto Posadas

*NAK Jaialdirako erabateko estreinaldiak

**Erabateko estreinaldia. NAK Jaialdiaren enkargua

INTERPRETEAK

CMC GARAIKIDEAK: Leire Unzué, Carmen Ferrando, Josu Marauri, Sergio Eslava.

SIGMA PROJECT: Andrés Gomis, Ángel Soria, Alberto Chaves, Josetxo Silguero.



www.nakfestival.com

ORGANIZAN ANTOLATZAILEAK



civivox



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala

ACTIVIDAD SUBVENCIONADA POR EL MINISTERIO DE CULTURA Y DEPORTE
KULTURA ETA KIROL MINISTERIOAK DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZA



COLABORAN KOLABORATZAILEAK

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Navarra
Live Music!



inæm

FUNDACIÓN CAJANAVARRA

Fundación "la Caixa"

innovacultural

FUNDACION BALUARTE FUNDAZIOA



CONSERVATORIO SUPERIOR DE MÚSICA DE NAVARRA
NAFARROAKO GOI MAILAKO MUSIKA KONTSERBATORIOA

Ciudad de la música
Musikaren Hiria



B3FACO

atarian

ARION

CTL
formacion imagen•sonido